

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresan beharko ditugun baliabideak 2 multzotan sailkatu ditugu, alde batetik baliabide fisikoak eta bestetik intelektualak.

Baliabide fisikoei dagokionez, badira zenbait gauza fisiko ezinbestekoak direnak. Hasteko nahitaezkoa izango da alokairu bat gure bulegoa ezartzeko. Hau administrazio lanak egiteko ez ezik, harrera-leku bezala ere erabiliko dugu. Bigarrenik, bulegoko materiala beharko dugu, hala nola boligrafoak, artxibadoreak etb... Bestetik, bulegoa txukun jartzeko mahaiak, aulkiak eta bestelako altzairuak ezinbestekoak izango dira apaingarrietaz ahaztu gabe. Gainera, lana egin dezagun gailu elektronikoak erabili beharko ditugu, beraz ordenagailu eta inpresora nahita nahiez beharko ditugu. Honekin lotuta, bezeroekin hitz egiteko telefono bat ere beharko dugu. Hau gutxi balitz, gure ordutegia jornada osokoa izango denez, bertan bazkaltzeko aukera izateko gailu elektrodomestikoak ere beharrezkoak izango liratezke. Adibidez kafetera eta mikroondasa.

Bestalde, baliabide intelektualari dagokionez, lau langile garenez, bakoitzak arlo ezberdin batean espezializatuko da. Hasteko, egiteko ditugun lanak honako haue dira; kontabilitatea (diru kontuak eta kalkuluak), elkarrizketak eta bezeroekin hitz egiteak, diseinatzailea (web orria, kartelak, bulegoa etab.) eta publizitarioa (beste enpresekin, adibidez).

Behin rolak azalduta, hona hemen bakoitzak zein egingo duen: Maleni arlo soziala asko gustatzen zaio eta badaki besteekin tratu ona mantentzen. Gutxi balitz, bezeroak ezagutzen saiatzen da, bakoitzarekin nolako tratua izan dezakeen jakiteko, horrela bakoitza erosoago senti dadin lortzen du, beraz, Malen komunikazioan eta bezeroen arretan arituko da. Jarraitzeko, June ondo moldatzen da diru kontuetan eta kalkuluetan. Berak kontrolatuko du diruz nola gabiltzan, zenbat diru behar eta gastatu dezakegun, noiz eta nori ordaindu behar diogun, bezeroek ondo ordaindu duten, noiz ordaindu behar duten eta zenbat eta bulegoan zerbait falta ezker, June arduratuko litzateke hau lortzen. Nereari dagokionez, moda eta diseinu arloa bere kontu egongo dira. Nereak, betitik izan du interesa diseinu eta modan, hori dela eta, asko daki honen inguruan, beraz, Nereak gure webgunea eta app-a apaindu eta eramango ditu, egunerokotasuneko edukia argitaratuko du, bulegoko apaingarriak ere berak antolatuko ditu eta bukatzeko, publizitatean beharrezko kartelak berak prestatu eta inprimatuko ditu, behar diren neurrian. Amaitzeko, Maitane publizitate munduan ibiliko da. Maitane izango da beste enpresekin kontaktatuko duena haiek ere gure publizitatea zabal dezaten, esaterako, beterinario eta bidaiaria agentziekin.

Asko ez balitz, publizitatea gehiago zabaltzeko, zenbait patrozinio ere egingo ditu, adibidez, beste zenbait proiektu edo ekintzatan, gure izena ere ezagutzearen ardura Maitanek izango du. Noski, beti ere, elkarlana ere sustatzen dugunez, elkar lagunduko dugu, norbaitek arazo edo kezka bat izan ezker.